

"IGNACIO H. DE LARRAMENDI" IKERKETARAKO LAGUNTZAK (2017)

Ikerketarako 10 laguntza deialdi egin dira diruz laguntzeko ikerketa proiektuak egiteko ondoko arloetan: Osasunaren Sustapena eta Asegurua eta Gizarte Aurreikuspena. Mundu mailako deialdia da.

Onuradunak:

Laguntzak zuzenduta daude deialdiko oinarrietan aipatutako arloetan ikerketa proiektuak garatu nahi dituzten eremu akademikoko eta profesionaleko ikertzaileei eta ikertaldee (ikus bigarren oinarria)

Laguntzen ezaugarriak:

Hona laguntza bakoitzaren gehieneko diru zenbateko gordina:

- 1. Osasunaren Sustapena: 48.000 euro.**
- 2. Asegurua eta Gizarte Aurreikuspena: 15.000 euro.**

Iraupena urtebetekoa izango da, onartu eta formalizatzen denetik hasita.

Eskaerak aurkezteko epea eta era:

Laguntza hauek eskatzeko, agiriak online bidez erregistratu eta bidaltzeko epea 2017ko urriaren 13an amaituko da (egun hori barne). Ikertzaile nagusiak **2017ko urriaren 6a baino lehen (egun hori barne) bidali beharko ditu ondorengo agiriak PDF formatuan convocatorias.dgi@ehu.es helbidera, Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura behar den epean lortzeko:**

- 1. Ikertzaile nagusiaren eskaera galde sorta.**
- 2. Behar izanez gero, ikertaldearen eskaera galde sorta.**
- 3. Curriculum vitae profesionala, ikertzaile nagusia izendatuta ikertaldeak direnean. Curriculumaren gehieneko zabalera bost orrialdekoa izango da ikertaldeko kide bakoitzeko, eta batez ere aurkeztutako proiektuaren gaiari emango zaio garrantzia.**
- 4. Erdietsitako titulu edo ziurtagiri akademikoen kopia eskaneatua.**
- 5. Orijinala eta berria izango den ikerketa proiektuaren azalpen txostena ondokoak erabilia: <https://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es/es/ayudas-becas-premios/ayudas/investigacion-ignacio-larramendi/> webguneko txantiloia, 8tik 12ra bitarteko luzera, Arial letra mota eta 12 puntuko letra tamaina.**

Bazter geldituko dira laguntzearako ezarritako gehieneko zenbatekotik gora kostatu eta finantziazio gehigarria izatea aurreikusten ez duten eskaerak.

6. Proiektu bera egiteko **laguntza konkurrenteen formularioa** (Eredua Ikerketaren arloko webgunean duzue. Kontsultatu nola bete behar den).
7. **Ikastegiko Etika Batzordearen egiaztapena**, ikerketa klinikoko proiektuetan edo ikerketaren nolakoak halaxe eskatzen duenean. **Animaliekin Esperimentatzeko Batzordearena**, animaliekin esperimentatu behar bada.

Agiriak ondoko hizkuntzetan aurkeztu ahalko dira: gaztelaniaz, ingelesez eta portugesez.

Agiri guztiak aztertutakoan, **UPV/EHUren legezko ordezkariak sinatutako "gutun aurkezpena"** agiria bidaliko zaio ikertzaile nagusiari Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik.

Ikertzaile nagusia izango da eskaeraren azken aurkezpena deialdian jarritako epean (2017ko urriaren 13a, egun hori barne) modu telematikoz egiteko arduraduna.

Lehen fase honetan ez da paperezko agiririk aurkeztu behar. Laguntza jasotzeko Balioespen Batzordeak proposatutako proiektuen ikertzaile nagusiak **erabakia argitaratu eta hiru asteko epean bidali beharko ditu, beheko helbidera, sinatutako jatorrizko formularioak, ikastegiko aurkezpen gutuna eta, behar izanez gero, Etika Batzordearen ziurtagiria**, ondoko erreferentziarekin: "Ikerketarako Laguntzak", eta segidan hautagaitza aurkezten duen arloaren izena:

FUNDACIÓN MAPFRE
"Ayudas a la Investigación Ignacio H. de Larramendi 2017"
Paseo de Recoletos, 23
28004 Madrid

Informazio gehiago:

http://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es_es/te-interesa/beca-ayuda/ayuda-larramendi/default.jsp

Ikerketaren arloko kontaktua: igz.deialdiak@ehu.es / 94 601 8008